DEBAKO UDALA

2020SECG0006
6.BILERA: OHIKOA 2020/11/26

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA**
ACTA de la JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

BILERA ZK.: 6
EGUNA: 2020/11/26
HASIERA ORDUA: 17:08
AMAIERA ORDUA: 17:40
TOKIA: Bilera gela, 2. Solairua.

Nº: 6
DÍA: 26/11/2020
HORA DE INCIO: 17:08
HORA DE FINALIZACIÓN: 17:40
LUGAR: Sala de reuniones, planta 2ª

**BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, **alkatea**

Itziar Irizar Beristain (EH Bildu)
Aritz Larrañaga Unanue (EH Bildu)
Antxoka Elorza Altuna (EH Bildu)
Pedro Bengoetxea Loiola (Debarren Ahotsa)
Ane Egidazu Elosua (Debarren Ahotsa)
Iñigo Cambronero Alkorta (EAJ-PNV)
Eneritz Gomez Lázaro (EAJ-PNV)

Jorge González Endemaño (Idazkaria)

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, alcalde

Itziar Irizar Beristain (EH Bildu)
Aritz Larrañaga Unanue (EH Bildu)
Antxoka Elorza Altuna (EH Bildu)
Pedro Bengoetxea Loiola (Debarren Ahotsa)
Ane Egidazu Elosua (Debarren Ahotsa)
Iñigo Cambronero Alkorta (EAJ-PNV)
Eneritz Gomez Lázaro (EAJ-PNV)

Jorge González Endemaño (Secretario)

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK:**

**1. 2020ko Lan Eskaintza Publikoa onartzea, hala badagokio**

**Gilen:** Idatzi bat sartu da, eta behar bezala baloratzeko eta erantzun ahal izateko nahiago dugu pixka bat itxaron, gauzak ondo egin eta Itziar ondoren onartu. Ondo iruditzen bazaizue ez dugu landuko gai hori.

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS

1. Aprobar, si procede, la Oferta Pública de Empleo 2020.

Gilen: Ha tenido entrada un escrito y para poder valorarlo y atenderlo, preferimos esperar un poco, hacer bien las cosas y después aprobarlas. Si os parece bien no trataremos este tema hoy.

Denak ados daude.

Todos muestran su conformidad.

**2.- 2020ko 8,9 eta 10 zenbakidun fakturen zerrendak onartzea, hala badagokio**

2.- Aprobar, si procede, la relación de facturas nº 8, 9 y 10 del 2020

**Itziar:** Ogasuneko Batzordean begiratu genituen.

Onartzen dira fakturen zerrendak.

Itziar: Lo tratamos en la Comisión de Hacienda.

Se aprueban las relaciones de facturas.

**3.- 2019an Lankidetzarako onartutako bi proiektuen aldaketa onartzea, hala badagokio. 2020ko lankidetza-proiektuetarako diru-laguntzak onartzea, hala badagokio.**

3.- Aprobar, si procede, la modificación de los dos proyectos de cooperación aprobados en 2019. Aprobar, si procede, conceder las subvenciones a los proyectos de cooperación 2020.

**Gilen:** Gai-zerrendako puntua 2019an onartutako bi lankidetza-proiektuen aldaketa zen, baina konturatu gara eskumen hori Osoko Bilkurari dagokiola, eta gero aztertuko dugu. Beraz, denok ados bagaude, hemen gure eskumenekoa denari helduko diogu: 2020ko lankidetzarako laguntzei, puntu hori ez da osoko bilkuran aztertzen.

Gilen: El punto del orden del día solo estaba planteado para aprobar la modificación de los dos proyectos de cooperación aprobados en 2019. Pero nos hemos dado cuenta de que esa competencia corresponde al Pleno, y luego la trataremos. Por lo que si todos estamos de acuerdo, abordaremos lo que aquí es de nuestra competencia: las ayudas a la cooperación 2020, ese punto no se trata en el pleno.

**Aritz:** Proposamenak daude puntuazioen azpian, zeini ematen zaion dirua. Gizarte Batzordean aztertu ondoren, eta teknikariaren irizpideak kontutan izanda, aho batez onartu genituen.

Aritz: Después de las puntuaciones figuran las propuestas de a quiénes darles el dinero. Una vez tratado en la Comisión Social, y teniendo en cuenta las consideraciones de la técnica, se aprobó por unanimidad.

Bost proiektu dira: Kooperazioa, Gazte kooperazioa, Sentsibilizazioa… Bati ez bazaio dirurik eman, beste poltsa batera pasa eta banatzen da.

Son cinco proyectos: Cooperación, Cooperación Juvenil, Sensibilización… Si a uno de ellos no se le ha dado dinero, lo pasamos a otra bolsa para repartirlo.

Puntuazio handiena jaso duten sei proiektuei, %100 eman beharrean, %85 eman zaie; eta horrela, beste bi proiektu gehiago sartu ahal izan ditugu: “Bonan fundazioa” eta “Berdinak gara”. Ikusi genuen nahiko landutako proiektuak zirela, eta aukera ematea erabaki genuen.

Los seis proyectos que mayor puntuación han recibido. En lugar de darles el 100%, les hemos dado el 85%, y de este modo se han podido incluir otros dos más: “Fundación Bonan” y “Berdinak gara”. Vimos que sus proyectos estaban bastante elaborados y decidimos darles una oportunidad.

Bestaldez, Zaporeak eta Salvamento Maritimok aurkeztutako proiektuak Saharakoa baino sendoagoak ikusi ditugu. Horiei 100% eman zaie, eta sobratutakoa Saharari eman zaio.

Por otra parte, los proyectos de Zaporeak y Salvamento Marítimo son más sólidos. A estos les hemos dado el 100%, y lo que sobraba a Sahara.

Partida banatu egin da. Aurten “Mugarik gabe”koek sentsibilizazio proiektu bat aurkeztu dute eta 1.180€ emango zaie; beste urte batzuetan “sentsibilizazioan” ez da inor aurkeztu.

Se ha repartido la partida. Este año los de “Mugarik gabe” han presentado un proyecto de sensibilización y les hemos dado 1.180€; otros años no se ha presentado nadie en “sensibilización”.

Gazte kooperazioan ere bat aurkeztu da, pasa den urte bukaeran egindako proiektua da. Aldaketa bat egin genuen arauetan sartu ahal izateko urritik aurrerako proiektuan. Hau aurreko urtean sartu gabe gelditu zen.

También se ha presentado uno en “Cooperación Juvenil”. Se trata de un proyecto realizado a finales del año pasado. Se han hecho unos cambios para incluirlo en la normativa, incluirlo a partir de octubre. Se trata de uno que no se incluyó el año anterior.

Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez onartu du 2020ko lankidetza-proiektuetarako diru-laguntzak ematea.

La Junta de Gobierno Local aprueba por unanimidad la concesión de subvenciones a los proyectos de cooperación 2020.

**4.- Covid-19agatik Eguneko Zentroaren itxieraren berri ematea**

4.- Informar sobre el cierre, por Covid19, del Centro de Día

**Aritz:** Aldundiak egoera ikusita itxi egin zuen zentroa. Asteartean berriro martxan

**Aritz:** La Diputación decidió cerrar el centro. El martes volvió a funcionar y ayer la

jarri zen, eta atzo Aldundiak kudeatu zuen berriz irekitzea. Tarte horretan erabiltzaileekin harremanetan egon gara; batzuk ospitalean, beste batzuk etxean positiboak, negatiboak,… kudeatu dugu, eta langileekin ere bai. Irekiera baldintzatuta egon da: erabiltzailek negatiboa eman behar zuten, eta zerbitzua emateko langileak geneuzkan. Gaur egun langileak lanean daude; langile batzuei oporrak emateko aprobetxatuko dugu, eta zerbitzua bermatuta dago. Momentuz sei erabiltzaile daude, seguruenik astelehenean zazpigarrenari alta emango diote. Astelehenean Eguneko Zentroa erabiltzen hasiko dira. Beste erabiltzaileak beste egoera batzuetan daude: batzuk etxean baina tratamenduarekin, alta eman gabe. Etxean gelditu direnei saiatu gara zerbitzua ematen, Eguneko Zentroko langileen bitartez, hori eskatu diguten heinean; batzuk ez dute eskatu.

Diputación gestionó su apertura y puesta en marcha. Durante este tiempo hemos mantenido contacto con los usuarios, algunos en el hospital, otros en casa, positivos, negativos; se han hecho las gestiones así como con los trabajadores. La apertura ha estado ligada a que los usuarios dieran negativo; teníamos personal para dar el servicio. Actualmente los trabajadores están en sus puestos; aprovecharemos para darles las vacaciones a algunos, pero se garantiza el servicio. De momento hay seis usuarios, probablemente el lunes se le dé el alta al séptimo. El lunes comenzará a utilizarse el Centro de Día. Otros usuarios se encuentran en diferentes situaciones: algunos en casa, pero con tratamiento, sin recibir el alta. A los que han estado en casa, hemos intentado atenderles con el personal del centro de día, en función de lo que nos han solicitado; algunos no han solicitado.

**Iñigo:** Nik zalantzak ditut kaleko jendeak ba ote dakien zer gertatu den Eguneko Zentroan. Gai konplexua da, pentsatu behar da ona den ala ez jakitea edo ez jakitea. Udaletik egon den albiste bakarra itxiera eta irekiera izan da.

**Iñigo:** Yo tengo mis dudas de si la gente de la calle es consciente de lo que ha pasado en el Centro de Día. Es un tema complicado, que tiene las consecuencias; hay que plantearse si es bueno o no que se sepa o no se sepa. La única noticia que ha habido desde el ayuntamiento ha sido el cierre y la apertura.

**Aritz:** Informatu da ere zenbat erabiltzaile ospitalizatu diren eta langileen egoera.

**Aritz:** Se ha informado de cuántos usuarios han sido hospitalizados y de la situación de los trabajadores.

**Itziar**: Hori boletinean azaldu da.

**Itziar:** Eso se ha publicado en el boletín.

**Aritz:** Diarioko kartan ere horrela jaso zen, eta web orriko prentsa-oharrean ere

**Aritz:** En la carta del Diario también aparecía, así como en la nota de prensa de la web,

horrela jaso da, lehenengoan eta hurrengoetan.

tanto en la primera como en las siguientes.

**Iñigo:** Niri jendeak kalean galdetzen didate.

**Iñigo:** A mí me preguntan en la calle.

**Gilen:** Egin dugun gauza bakarra da heriotzarena ez nabarmendu, arrazoi hauengatik: bata, familiaren mina arintzea; bi, heriotza batzuk nabarmendu eta bete batzuk ez, desberdintasunak markatzen ditu. Bestaldez, badirudi zerbitzu bati lotutakoak aipatzen direla, baina liburutegiko erabiltzaile bat hilko balitz ez genuke esango.
Egoera esatearekin ados gaude, baina besteak jartzen du fokoa bi pertsonen gainean, eta informatu beharrean, alarma sortzen du, eta noski familiarentzat hobea izan dadin.

**Gilen:** Lo único que hemos hecho es no destacar las muertes por las siguientes razones: uno, mitigar el dolor de la familia; dos, señalar algunas muertes como algo especial, marca algunas diferencias. Por otra parte, parece que se mencionan las relacionadas con un servicio… pero si fueran usuarios de la biblioteca no lo indicaríamos.
Estamos de acuerdo en dar a conocer la situación, pero colocar el foco sobre dos personas, en lugar de informar, crea alarma, y por supuesto, por el bien de la familia

**Iñigo:** Ez daukat garbi informazio hori eman behar denik… Udalaren zerbitzu bat da eta gure ardura da. Gure babespean dagoen zerbitzua da.

**Iñigo:** No tengo la opinión clara de si hay que dar esa información. Es un servicio del ayuntamiento, es una responsabilidad nuestra. Es un servicio que está bajo nuestro amparo.

**Gilen:** Guk eztabaidatu dugu, eta uste dugu hain delikatua dela, hobe dela ez egitea, orain arte egin ez den bezala, gaixotasun luze baten ondoren erabiltzaile bat hil denean.

**Gilen:** Nosotros lo hemos debatido y pensamos que es tan delicado, que es mejor no hacerlo, al igual que no se ha hecho hasta ahora cuando ha fallecido un usuario tras una larga enfermedad.

**Iñigo:** Nik informazio hori aurkitu ez duen herritar baten moduan ari naiz. Boletinera harpidetuta ez bazaude, eta jende asko ez dago, ez duzu informazio hori eskuragarri. Jendeak kalean galdetu zidan larunbatean bertan, itxi zenean.

**Iñigo:** Yo estoy hablando como un Debarra de a pie, que no ha encontrado esa información. Si no estás suscrito al boletín, y mucha gente no lo está, no tienes esa información. A mí la gente me preguntaba por la calle, justo el sábado después del cierre.

DEBAKO UDALA



Besterik gabe 17:40etan bukatu zen bilera. Eztabaidatutakoa nahiz erabakitakoa jasota geratzeko, nik, idazkari naizen honek, hori guztia idatzi eta ziurtatu egiten dut, lehendakariak ontzat emanda.

Sin más temas que tratar terminó la reunión a las 17:40 Para que conste lo tratado y acordado, redacto y firmo éste acta con el visto bueno del presidente.

Jorge González Endemaño
Idazkaria

DEBAKO UDALA IDAZKARITZA OROKORRA SECRETARIA GENERAL AYTO. DE DEBA

Gilen Garcia Boyra
Alkatea

DEBAKO ALKATETZA ALCALDÍA DE DEBA